

Koralen enbrioiaik gai dira klonak sortzeko

Enbrioia ez da hiltzen olatuen eraginez zatitzean; koral “txiki” klonikoak sortzen dira zatietatik

Koralak sexu bidez ugaltzen dira, baina harreman estua dute klonazioarekin ere.

Adibidez, ezagun da itsaso zakarra denean apurtu eta arrezifetik askatzen diren koral-zatiek bizirik segitzen dutela aurrera, jatorrizkoaren

klon gisa. Laborategian egindako esperimentuetan Australiako Itsas Zientzien Institutuko ikertzaileek frogatu dute gaitasun hori bera dutela enbrioiekin ere. *Science* aldizkarian argitaratu dutenez, ernaldutako koralen obuluak olatu artifizialen

eraginpean flotatzen jarritakoan, hautsi eta barreiatu egin dira, aurreikusi bezala; baina, galdu ordez, zatietako gehienak hautsi gabeko enbrioia arruntan gisa garatu eta ezarri dira. Alde bakarra izan da ohikoak baino koral txikiagoak sortu direla zatietatik.

Ikertzaileek espero zuten obulu ernalduak hautsi egingo zirela olatuaren eraginpean, koralen enbrioiek ez dutelako kanpoko mintz babeslerik, baina ez zuten uste koral klonikoak sortuko zirenik ondoren. Eragindako turbulenzia itsas kondizio arruntan parekoa denez, ikertzaileek uste dute klonazio-fenomenoa ohikoa dela koralen ugalketan, eta “enbrioiek mintz babeslerik ez izatea ez dela gabezia. Enbrioia biluzien ia erdiak zatitu ziren gure esperimentuetan, eta horrek iradokitzen du aspalditik dela hau koralen ugalketa-ahalegina maximizatzeko mekanismoen parte”, nabarmendu dute ikerketaren zuzendariek. ●



Koral gazteen tamaina oso uniformea izan ohi da. Turbulentziek enbrioiaik hausten dituztenean, aldiz, oso tamaina desberdinetako zatiak sortzen dira, nahiz eta denek izan normal garatzeko beharrezko informazio guztia. Irudiko enbrioia zatiak koralen polipo txiki bat osatzeko bidean daude.

ARG.: © HEYWARD ETA NEGRI/AIMS.



SBIREAN+

Ez zuten ikusi argia baino neutrino azkarragorik OPERA laborategian

Joan den irailean fisikako albiste harrigarria izan zen: argia baino azkarrago mugitzen diren neutrinoak detektatu zituztela Italiako OPERA laborategian, eta albiste horrek Einsteinen erlatibitate bereziaren teoria kolokan jartzen zuen. Baina OPERAko zientzialariek bi akats-iturri aurkitu dituzte esperimentuan, biak GPS sistemarekin lotuta. Satelitearen erlojua eta Lurrekoa sinkronizatu behar ziren, eta prozesu horretako kalkuluak ez zeuden ondo eginak. Beste alde batetik, OPERAko zientzialariek esan dute “konexio akasdu bat” zegoela GPSaren seinalea OPERAko erloju nagusira eramaten duen sisteman, zuntz optikoaren konexio batean. Neutrinoen mugimenduaren espazioa eta denbora GPS sistema horrekin neurtzen denez, ezin dituzte ontzat eman neutrinoen abiaduraren neurketak. ●

Tevatronen ere detektatu dute Higgs bosoa

Dagoeneko, Higgs bosoa bi laborategitan detektatu dute. Iazko abenduan, CERNeK iragarri zuen beren esperimentuetan detektatu zutela, eta, orain, aurkikuntza Fermilab laborategiko fisikariek berretsi dute, Tevatron azeleragailuan egindako azken esperimentuetan. Tevatron Estatu Batuetako azeleragailua zen, eta irailean itxi zuten; hilabete hauetan, fisikariek han egindako azken esperimentuetako datuak aztertu dituzte, eta bosoiaren zantzuak aurkitu dituzte. Emaitzak ez dira nahikoak Higgs bosoa aurkitu dutela aldarrikatzeko, baina esanguratsuak dira CERNeKo aurkikuntza berresteko, bi laborategietako emaitzak bat datozelako. ●